

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4740

417/2025 EBAZPENA, urriaren 15ekoa, Santa Marina Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Miriam León Sáez de Ibarra andrea Administrazioko eta Kudeaketako Ataleko buru izendatzen baita, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Santa Marina Ospitalean.

326/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi bat egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Santa Marina Ospitaleko Administrazioko eta Kudeaketako Ataleko buruaren lanpostu bat izendapen askez hornitzeko.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Miriam León Sáez de Ibarra andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Administrazioko eta Kudeaketako Ataleko buru izendatzea, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Santa Marina Ospitalean.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Miriam León Sáez de Ibarra andrea Administrazioko eta Kudeaketako Ataleko buru izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Santa Marina Ospitalean.

Bigarrena.– Izendapen honek 2025eko urriaren 15ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak honako hau eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, ezaugarri berberak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurralde-eremu berberetan. Atxikitze horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua hornitzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2025eko urriaren 15a.

Santa Marina Ospitaleko zuzendari-gerentea,
ICAR MARÍA LARREA ARECHAVALAETA.